

ERRIALDE GUZTIEN EDESTIA

3.– BABILONIARRAK (3000-1000)

Zergaitik edo agaitik, edestian gogoangarriak dira laterri batzuk.

Babilonia da olako bat.

Inguruko erri txikiak iruntzi ta iruntzi ibilli zan eta besteak baiño lenago eldu ziran agiterri izatera.

Hamurabi erregea izan zan laterri onen izena ospetsu egin ebana, Babilonia´ri legeak emon eta irarri egin ebalako.

Auxe da edestian agertzen dan legedirik zarrena, Hamurabi´rena, Biblia´ko Abraan´en aldikoa..

Baiña ori barik be Babilonia´k izen aundia eukan, mundu zabalean bere edertasunak ezagunak izan zirala-ko.

Eufrate ibaiak erdi bi egiten eban Babilonia, ibai au arresi biren preso lez joiala.

Ibai orretan, uraren gaiñean, merkatarri-ontzi astunak ikusten ziran eta jolasketarako txalupa ariñak be bai.

Kale guztiak ibaira joten eben, bakoitxak bere arresit-kanpora burua aterata.

Uri aundia zan eta arro egoan bere aunditasunaz eta orma margotuetan irudiz margotuta agertzen eban bere aunditasuna.

Arresiaren zati aundi bakoitxak, atea zaintzeko, lejiño- pare bat eukan.

Babilonia aundia sendoa ta indartsua zan eta edozein gudarostek, aundiena izan arren, eraso egiten eutsonean, ezin eikean bere barruko bizitasun ugaria moteldu.

Uri aundi onen azokak beti egoten ziran salerosleaz bete-beterik.

Barruan, kaleetan, lanaren zaratea zan ugaria, mail- dunak tiliki tauki, euleak firun-firun, lan-ikusleak ardura- tsu.

Buru argiko gazteen ametsa abade izatera eltzea zan eta orrelan irakurten, idazten eta izarretatik gauzak ira- garten ikasten eben.



Asiria: Erregea ta erregiñea.

Urrengo aginterriak Babilonia´ko baratz ederrak egin- go dauz. Oneik edesti osoan goratuak izan dira eta eder- tasunen zazpi toki aukeratzekotan, bat baratz oneik ziran.

Euren jainkoa zan Marduk´eri egiten eutsoezan ospa- kizunak arrigarriak ziran.

4.– ASIRIAR GUDA-ZALEAK (1100-600)

Iparraldean Asur-uri inguruan bizi zan asiriarren erria, guda baiño beste ametsik ez eukan erri gogorra. Ospeta- su da errialde au beronen gudarostea odol-zalea zalako.

Gudari asiriarak euren burdiakaz, su ta gar, eraso eutsoen Babilonia´ri. Lenengo uri au eta gero Ejipto´ko uri pinpiriñak zapaldu ebezan.

Ordura arte izandako aginterririk zabalena biurtu ziran eta lurralde zabal guzti orren buru eurak ziran.

Agintzen be oso gogorak ziran eta euren izena “Mamu” bildurgarri lez zabaldu zan inguru guztira.

Aginterria lortu ebenean, Babilonia aundiago biurtu zan eta euren uriburua zan Ninibe uri buru ondo apain- dua eta arresi bikoteaz ondo zaindua biurtu zan. Dana eurak egindako lan aundiaren ondorena.

Jauregi asko egin ziran Babilonia´n, jauregirik bikai- ñenak, eta guztiak gudan menperatutako morroiak eragi- ñak: Maillaka egindako etxe-maillak ugari, inguruko etxeen gaiñetik burua ateraten ebela. Lorategi ikusgarriak ziran oneik, usain gozoa dariela.

Ninibe ta Babilonia´ko kaleak eguzkitan erretako zoiz egiñak ziran eta bardin, zoi errea erabilten eben iruna edo launa bizileku eukezan kale-etxeak be, etxe txukunak.

Ango ugaritasunaren ezaugarri ziran Jainko gogorren- tzat egindako jauretxe bikaiñak eta ordura-arteko jakitu- ria batzeko eregi ebezan liburutegiak.

Baiña ango biztalerik geienak ez egozan liburutegie- tan begiak erreten edo loradi ederretan zurak gozatzen. Jo ta ke lan egin-bearrean egozan, merkatarien ganbeluai itxaroten eta uri-barruan morroi eta mirabe-lanak egiten.

Edonoz bialtzen ebezan gudariak etsai batek ez-ustez erasoten ebalako.

Abadeak etxeetatik ateraten ebezan ume bigunak Jainko gogor arei eskintzeko.

Kaldaitarrak menperatu eben Asiria. Gero Per- sia´tarrak zapaldu eben Kaldaia. Gizaldien joanean ola- kotxe gerrak, itxaso amorratuaren antzera, aztindu ebezan lur eder areik.

**MARGO EDERDUN ENTZIKLOPEADIA´tik
OLAZAR´tar Martin´ek moldatua**